

# Gorrien hotza, berdeen beroa

Moskuko CSKAK eta Panathinaikosek Euroligako finala jokatu dute gaur, Berlinen

## A. Urbistondo

Eltxeko lanak ondo egiten dituzten kirol egituren adibide ezin hobe dira Moskuko CSKA eta Atenasko Panathinaikos, gaur Euroligako finala jokatu duten bi taldeak. Agintariak dirua dute barra-barra, eta eraikitzen dituzten taldeak sekulakoak dira. Ettore Messina eta Zeljko Obradovic entrenatzaileek ere urteak daramatate talde berean, taldea nahierara moldatzen, konfiantza giro aproposa sortzen, milioika euro irabazten dituzten jokalarien berekoikeria talde lanaren mesedean alboratuz. Sosei eta entrenatzaileen jakinduriari eta eskarmentuari hirugarren osagai bat gehitu behar zaio: tituluak. Poltsikoa aski beteta duen jokalaririk, egunerokoa erreegen pare bizi denak, tituluak irabazi nahi ditu, eta, jakin badaki, hori lortzeko, bizpahiru taldetan aritu beharra daukara. Horietaiko bi CSKA eta Panathinaikos dira. Bien lortzen zerrenda hain da distiratsua, jokalarionenak bi talde horietan jokatzeko desiatzen daude.

Ramunas Siskauskas (CSKA) eta Sarunas Jasikevicius (Panathinaikos) lituaniarren kasua da. Siskauskasek bi Euroliga irabazi ditu, Panathinaikosekin 2007an eta CSKArekin iaz. Hiru irabazi ditu Jasikeviciusek, hiru talde ezberdinekin: Bartzelona, Maccabi eta Panathinaikos. Biek lehertu


zituzten aurkariak finalerdietan, joko ikusgarria eginez, eta gaurko finalean ere zeresana emango dute. Onean edo txarrean, bikote horrek lan txarra eginda ere, edonon menderatzeko abahmena baitute bi taldeek.

Egin kontu, bestela, talde bakoitzak duen baliabide sorta ikusgarri bezain amaigabea. CSKA Errusiako Armada Gorriaren kirol taldea da, eta garai bateko armada indartsuaren tankera dauka. Holden, Langdon eta Planinic 1 eta 2 postuetan, Siskauskas eta Khryapa langilea hegalekoetan, eta, barruan, indarra eta talentua borborka. Indarra jartzen du Morris estatubatuarra, eta talentua Smodis eta Lorbek esloveniarrek.

Panathinaikos, ordea, ez da atzean geratzen. Spanoulis, Nicholas eta Jasikevicius ditu joko antolatzaile eta eskolta postuetarako, Diamantidis zakur zaharra eta Fotsis maisua hegalekoetan, eta, saskiperako, inoiz nekatzen ez diren bi jokalarik: Batiste eta Pekovic. Astunak dira, indartsuak, baina azkarrak ere bai, eta haiek defendatzea oso zaila da. Baita CSKA Moskuko pibot bikainen zatitza ere.

## Entrenatzaileen titulu festa

Joko estilo ezberdina dute bi taldeek. CSKA hotzagoa da, ez da urduritzen, ez du gorabehera handirik. Badirudi beti dakiela zer egin, eta ondo egiten du, gainera. Bartzelona hiru laurdenetan nagusi izan zen, baina azken laurdenean hazi egin zen CSKA, eta errepasso handi samarra eman zien kataluniarrei. Panathinaikosek, aldiz, onena eta txarrean eman dezake. Olympiakosen aurka erakutsi be-



Siskauskas, Holden eta Khryapa CSKA Moskuko jokalariek, Bartzelonaren aurkako garaipena ospatzen, herenegun. JENS WOLF / EFE

zala, aurkaria txikitzeko gai izan zen bizpahiru aldiz, baina ondoren aurkariari arnasa eman zion, eta Lauko Finaletik at geratzeko zorian egon zen azken unean. Metafora bat erabiliz, badirudi CSKA Errusiako hotzarekin kutsatu dela, eta Panathinaikos Mediterraneoko giro beroarekin.

Merezi du bi entrenatzaileen jardunari begiradaxo bat botatzea, distiratsuetan distiratsuen baina. Obradovicentzat 11. Lauko Finala da Berlingoa, eta sei Euroliga edo Europako Kopa irabazi ditu dagoeneko: Partizanekin aurrenekoa, Joventutekin gero eta Real Madrilekin azkena, Atenasen finkatu aurretik. Hamar urte daramatza Panathinaikos gidatzen, eta hiru Euroliga irabazi

ditu. Messinak lau Euroliga irabazi ditu, bi Bolognako Virtusekin eta azken biak CSKArekin. Izarrak joan-etorrian dabilta, baina entrenatzaileak ez. Meritu handiena haiena da.

## CSKA-PANATHINAIKOS

- **CSKA Mosku.** Holden, Zisis, Langdon, Planinic, Siskauskas, Khryapa, Smodis, Lorbek, Morris eta Kaun.
- **Panathinaikos.** Spanoulis, Drew Nicholas, Jasikevicius, Perperoglou, Catman, Diamantidis, Fotsis, Batiste, Pekovic eta Tsartsaris.
- **Lekua.** Berlingo 02 pabilioia (17.000 eserleku).
- **Ordua.** 20:00etan (Teledortze).

## → Laburrak

### Ordizia ez da sailkatu Kopako finalerako

**ERRUGBIA** ▶ Ampo Ordiziak ez du Espainiako Kopako finala jokatu. Goierriko taldeak Sevillako Cajasolen aurka galdu zuen atzo, Sevillan (41-12). Etxekoak askoz gehiago izan ziren, eta lehen zatian erabaki zuten kanporaketa (29-00). Beste finalerdia CRC Madridek eta El Salvadorrek jokatu dute gaur.

### Miamik kanporaketa berdinu du, Waderi esker

**SASKIBALOA** ▶ Miami Heatek Atlanta Hawksen aurkako NBAko ekialdeko konferentziako final-laurdenetako kanporaketa berdinu zuen herenegun (3-3), etxean 98-72 irabazita. Partida Dwayne Wade Miamiako eskoltak erabaki zuen, 41 punturekin, eta Michael Baisley gaztearen laguntzarekin (22 puntu eta 15 errebote). Partida erabakigarria gaur jokatu dute, Atlantantan.

### Ainhoa Murua 17. izan da Munduko Txapelketan

**TRIATLOIA** ▶ Ainhoa Murua 17. postuan sailkatu zen atzo, Tongjeongen (Hego Korea) jokaturiko Munduko Txapelketako lehen proban (2.05.48). Zarauztarra aurreko multzoan ibili zen korrika egin beharreko tartera arte, baina ezin izan zion eutsi erritmoari. Lehen sailkatua Emma Snowsill australiarra izan zen (2.02.42), Emma Moffat erkidearen aurretik.

### Nadal Djokovicen aurka, gaur, Erromako finalean

**TENISA** ▶ Rafa Nadalek eta Novak Djokovicen Erromako irekiko finala jokatu dute gaur. Kataluniarrek nagusitasunez irabazi zion Fernando Gonzalez txiletarrari (6-3 eta 6-3). Serbiarrek, berriz, behetik gora eginez irabazi zion Roger Federer sultzarri (6-3 eta 6-3).

### Tokiotarren %44k ez ditu nahi Olinpiar Jokoak

**OLINPISMOA** ▶ Nazioarteko Olinpiar Batzordeak (NOB) egoniko inkesta baten arabera, Tokioko biztanleen %44k ez du nahi hiri horrek 2016ko Olinpiar Jokoak antola ditzan. Tokio da zazpi urte barru jokoak antolatzeko favorito nagusia, eta herritarren iritzia traba handienetakoa hori lortzeko. Antolatzeko aurrez arazkizuriko inkestaren arabera, babesa %70ekoa zen.



## 7. EUROGAP MARKETING FOROA

Ostegunean, apirilaren 23an, 7. EUROGAP MARKETING FOROA izan zen, Kursaleko Ganbera Aretoa bete-beterrik zegoela. EUROGAPEk antolatua zuen ekitaldia, eta GESTIÓN DE MEDIOS mediok planifikatzeke konpainiak babestu.

Foroan, gure inguruko profesionalak bitzen dira, urtean behin. Urteetik urtera, gero eta topagune sendoagoa da talentearen berri elkarri emateko.

Zazpigarren aldiz honetan, Mario Alonso Puig jauna izan zen hizlari EUROGAP MARKETING FOROAN. Giza Adimeneran eta Ikasbideen aztertzailek handienetakoa.

Euskal-nafar enpresarien 600 ordezkari batzartu ziren, bai eta hainbat erlunde eta komunikabidetakoa kideak ere.

Mario Alonsoek sortze prozesua hobetzeko gakoak berri eman zuen: Ezaguera sakona, konpromisoa eta emozioa eta burua zabalik edukitzea.

Foroa bukatzean, hizlariaren azken liburua banatu zen, "Vivir es un asunto urgente". Alonsorekin batean, mahainan izan ziren Jon Paul Aizarna (Gestión de Mediosko Bazkide-Zuzendaria) eta Enrique Larumbe (EUROGAPEko Z. Nagusia).

**ERRETERIA MAIATZAK 1, 2, 3 2009**

Antolatzailea: **EREINTZA ELKARTEA**

**31.**  
www.ereintza.com

**EUSKAL HERRIKO ESKULANGINTZA AZOKA**

31. FERIA DE ARTESANÍA DEL PAÍS VASCO  
31. FOIRE D'ARTISANAT DU PAYS BASQUE

Leguntzaileak:  
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA  
ERRETERIAKO UDALA  
kutxa berria